

Tokiko Ekonomi Garapena **AZPIEGITURAK TOKIKO GARAPENEAN**

Local Economic Development
LOCAL DEVELOPMENT AND INFRASTRUCTURES

Desarrollo Económico Local
DESARROLLO LOCAL E INFRAESTRUCTURAS



As a Working Paper, it does not reflect any institutional position or opinion neither of EKAI Center, nor of its sponsors or supporting entities.

EKAI Center seeks to do business with companies or governments covered in its reports. Readers should be aware that we may have a conflict of interest that could affect the objectivity of this report. Investors should consider this report as only a single factor in making their investment decision.

GARAIA INNOVATION CENTER, GOIRU 1,A2 MONDRAGON

TEL: 943250104 VITORIA-GASTEIZ 639641457

LEKEITIO 675701785 DURANGO 688819520

E-MAIL: info@ekaicenter.eu

[facebook.com/ekaicenter](https://www.facebook.com/ekaicenter)

[scribd.com/EKAICenter](https://www.scribd.com/EKAICenter)

1. Dotrina Tokiko garapen ekonomikorako politikek azken hamarkadetan izan duten bilakaerari erreparatuz gero, hasi diru-laguntza zuzenetan oinarritutako politika bertikaletatik eta politika horizontalagoetaraino, lurralde-azpiegiturek funtsezko eginkizuna izan dute beti.

2. "Azpiegitura" terminoa hainbat kontzepturi aplikatu ahal zaio; beraz, nolabait sistematizatu eta zehaztu egin behar da termino hori, azterketa egoki zentratzeko.

3. Hasteko, lurralde-azpiegiturretan honako bereizketak egin ohi dira:

- Azpiegitura "fisikoak" ("hard infrastructures"): Garraioa, Energia, ICT, lurzorua, ...
- Erakunde mailako azpiegiturak ("soft infrastructures"): gobernantza, hezkuntza, ikerketa, finantziazioa, enpresa-parkeak edo teknologi parkeak, ...
- Azpiegitura "berdeak" edo "ekologikoak" ("green infrastructures")

4. "Azpiegitura" kontzeptuak adiera ugari dituenaz, azterketa zentratu beharra dago garapen ekonomikorako benetan esanguratsuen diren horietan. Jakina, zuzenean edo zeharka, ia azpiegitura guztiak dira nolabait esanguratsuen garapen ekonomikorako. Baina, bistakoa denez, munta handienekoak aukeratu behar dira.

5. Ekonomiaren aldetik garrantzia duten azpiegiturak lurralde bakoitzeko baldintzen eta aukeren mende daude. Esate baterako, bazterreko eskualdeetan, garraio azpiegiturak funtsezko faktore estrategikoa izan daitezke tokiko edo eskualdeko garapen ekonomikorako; hiriguneetatik hurbil dauden tokietan, aldiz, garrantzi txikiagoa dute.

6. Oro har, ingurune garatuetan, honako hauek izaten dira garapen ekonomikorako azpiegitura garrantzitsuenak: energia, garraioak eta IKT azpiegiturak, espazio eta teknologia azpiegiturak, oro har, eta prestakuntza tekniko edo teknologikorako azpiegiturak. Ingurune hiritarretan edo erdi hiritarretan, garrantzi berezia izan dezake hiri-lurzoruko industrien kudeaketak.

7.- Ordea, herrialde batentzako azpiegitura "nabarmen"-en azterketa ezin daiteke herrialde bateko edo gizarte bateko egiturazko ezaugarrien azterketa abstraktu/teoriko bat izan baizik eta, benetan, antzeman diren aukera edo defizit ezberdinen beharretan oinarritutako azterketa. Egitura baldintza antzekoetan, posible da herrialde batek IKT azpiegitura inbertsioei lehentasuna ematea berriz egitura sozio-ekonomiko antzekoa duen beste herrialde batek garraio azpiegiturei eman beharko die lehentasuna, aurreko herrialdeak azpiegitura hau ezarrita du eta.

8.- "Hard" azpiegiturrekin batera, garrantzizko ekipamendu fisiko eta aldaketa suposatzen dutenak, "soft" azpiegiturak ere hartu behar dira kontutan, harreman sozial eta pertsonaletan oinarrituta, tokiko estrategia ekonomikoetan garrantzi handia dutelako, herrialdearen kapital soziala bultzatzeko eta lurraldeko garapen politikak aurrera eramateko.

9.- Azkenik, azpiegitura "berde" edo "ekologikoak" ingurumena andeatutako herrialdeetan balio ekonomiko garrantzitsua izan dezakete.

10.- Nabarmena dela pentsa badaiteke ere, kontutan izan behar da azpiegitura politikak lurralderatzeko helburua lurralde eta herrialde bakoitzeko ezaugarri ezberdinei egokitzea dela. Noski, guzti hau hiri eta baserri eskualde edo

As a Working Paper, it does not reflect any institutional position or opinion neither of EKAi Center, nor of its sponsors or supporting entities.

EKAi Center seeks to do business with companies or governments covered in its reports. Readers should be aware that we may have a conflict of interest that could affect the objectivity of this report. Investors should consider this report as only a single factor in making their investment decision.

GARAIA INNOVATION CENTER, GOIRU 1,A2 MONDRAGON

TEL: 943250104

VITORIA-GASTEIZ 639641457

LEKEITIO 675701785

DURANGO 688819520

E-MAIL: info@ekaicenter.eu

facebook.com/ekaicenter

scribd.com/EKAICenter

inguru ezberdinen ohiko tipologia ezberdinetan adierazten da.

Hau funtsezko helburua izanik, logikoa da, ahal den neurrian, “bottom-up” metodologian oinarritutako prozesu estrategiakoak erabiltzea.

11.- Azpiegiturak herrialde bateko politika ekonomikoak gelditzeko “elementu instrumental” bat bezala ikusten baditugu, kontutan izan behar dugu azpiegitura hauek ezin direla berez justifikatu. Askotan, estrategia inbertsio konkretu bati buruz komunikabideek dakarren ondorio positiboak balio handiegia ematen diegu –eta hauen politika ondorioei. Ezinbestekoa da agintari politikoek proposatutako azpiegituren ondorioen azterketa eta balioztatzea seriotasun osoz egitea, azpiegitura hauek garapen ekonomikorako garrantzi handiko tresnak baitira.

12.- Honek azpiegituren ondorio ekonomikoen benetako neurketari garrantzi handia ematen dio, askotan ez baitira ondo aztertzen. Ondorio ekonomiko hauek ez dira zehazteko eta zenbatzeko errazak.

13.- Zentzu honetan, azpiegitura ekonomikoetan inbertsio estrategikoen “berezitasun” jatorria, tokiko-eskualdeko eremuan, ezinbestekoa da herrialdeko beharrak betetzeko eta beharrezkoak ez diren edo neurritz kanpoko inbertsioak saihesteko. Askotan beste herrialdeetan ezarritako azpiegiturak imitatze edo gobernu zentralen aurreratutako diseinu teorikoak jartzeko okerreko estrategiak ezartzen dira.

14.- Jakina, eskualdeko azpiegitura proiektuek balioztatze eta lehentasun irizpideak bete behar dituzte. Ez da nahikoa lurraldeko beharrak zehaztea. Proiektuarekin lortu nahi diren ondorio ekonomiko positiboekin batera, ezinbestekoa da:

a) orain arte behar hauek ez bete izanaren zergatia jakitea, lurraldearen egiturazko arazoengatik izan dela jakin behar da proposatutako proiektua aurrera eramateko ala ez.

b) zuzeneko eta zeharkako kostuen azterketa eta kostu hauetan ingurunearen baliabideak kontutan izan behar dira.

d) proiektuaren baliabideak erabiltzeko posible diren aukera ezberdinen azterketa burutu behar da

15.- Dena den, ohiko inbertsio desegoki edo gehiegizko kostua saihesteko, tokiko agenteen partaidetza zuzena eta etengabea ezinbestekoa da. Askotan, agintari politikoek pentsatutako azpiegitura proiektuak akats larrian bihurtzen dira.

As a Working Paper, it does not reflect any institutional position or opinion neither of EKAI Center, nor of its sponsors or supporting entities.

EKAI Center seeks to do business with companies or governments covered in its reports. Readers should be aware that we may have a conflict of interest that could affect the objectivity of this report. Investors should consider this report as only a single factor in making their investment decision.

GARAIA INNOVATION CENTER, GOIRU 1,A2 MONDRAGON

TEL: 943250104

VITORIA-GASTEIZ 639641457

LEKEITIO 675701785

DURANGO 688819520

E-MAIL: info@ekaicenter.eu

facebook.com/ekaicenter

scribd.com/EKAICenter